

a. Entzumena

- a.1.- Gai izatea eguneroko elkarrizketan, argi , astiro eta zuzen esandakoa ulertzeko; batez ere solaskideak ulertarazteko ahalegina egiten badu.
- a.2.- Gai izatea bere inguruko elkarrizketa baten gaia zein den harrapatzeko, jendeak astiro eta argi hitz egiten badu.
- a.3.- Gai izatea perpausak, hitzak eta esamoldeak ulertzeko klasean landutako gaietan (norberari eta familiari buruzko informazio oinarritzkoa, erosketei buruzkoa, herrikoa, lanekoa).
- a.4.- Gai izatea puntu nagusiak harrapatzeko mezu eta iragarki labur, argi eta sinpleetan.
- a.5.- Gai izatea eguneroko arazoekin zerikusia duten grabazio laburren informazio nagusia ulertzeko, astiro eta argi hitz egiten denean.
- a.6.- Gai izatea telebistan agertzen diren jazoera, istripu eta horrelako berrien mamia identifikatzeko, baldin eta irudi argiak agertzen badira.

b. Irakurmena

- b.1.- Gai izatea albiste-laburpenetako edo egunkariko artikuluko errazetako informazio nagusi identifikatzeko. Testu horiek argi egituratuak eta irudizatuak izan behar dute, eta beren edukietan zerbakiak eta izenak garrantzitsuak dira.
- b.2.- Gai izatea eskutitz pertsonal sinpleak ulertzeko. Esate baterako, norbaitek eguneroko gauzak kontatzen dituzenean edo horretaz galdetzen duenean
- b.3.- Gai izatea lankide edo lagunek idatzitako mezu sinpleak ulertzeko (esaterako, futboleko jokatzeko noiz bildu litezkeen esanez edo lanera lehenago joateko eskatuz).
- b.4.- Gai izatea aisialdiko jardueri, erakusketei eta abarrei buruzko informazio nagusia esku-paperetan aurkitzeko.
- b.5.- Gai izatea egunkarietan iragarki txikiak gainetik irakurtzeko, nahi duen izenburua edo zutabea aurkitzeko eta informazio-zati nagusiak identifikatzeko (esaterako, etxean, autoen edo ordenagailuen prezioak eta neurriak).
- b.6.- Gai izatea zerbitzuen eta tresnen argibide sinpleak ulertzeko (telefono publikoenak, adibidez).
- b.7.- Gai izatea ordenagailu-programen mezu edo laguntza-argibide sinpleak ulertzeko.
- b.8.- Gai izatea eguneroko bizimoduari buruzko idazki laburrak ulertzeko, gaiak ezagunak direnean eta testua erraz idatzita dagoenean.

c. Elkarreragina

- c.1.- Gai izatea salerosketa sinpleak egiteko dendetan, posta bulegoan edo bankuan.(simulazio-egoera batean klasean)
- c.2.- Gai izatea garraio publikoak erabiltzeko (autobusak, trenak eta taxiak), oinarritzko argibideak eskatu edo txartelak erosteko baliabide nahikorik badu-eta.
- c.3.- Gai izatea bidaiari buruzko informazio sinplea lortzeko.
- c.4.- Gai izatea edatekoa edo jatekoa eskatzeko.
- c.5.- Gai izatea erosketa sinpleak egiteko, zer nahi duen esanez eta prezioa galdetuz.
- c.6.- Gai izatea mapa edo plano baten gainean bidea galdetzeko edota adierazteko.
- c.7.- Gai izatea jendea agurtzeko, nola dauden galdetzeko eta ematen dizkioten berrien aurrean zerbait esateko.
- c.8.- Gai izatea gonbitak egiteko edo gonbitei erantzuteko formula errazak erabiliz
- c.9.- Gai izatea aitzakiak jartzeko edota onartzeko.
- c.10.- Gai izatea zer gustatzen zaion eta zer gustatzen ez zaion esateko . Gai izatea beste batzuekin zer egin eta nora joan eztabaidatzeko. Gai izatea elkartzeko ordua eta tokia adosteko
- c.11.- Gai izatea jendeari lanean eta aisialdian zer egiten duen galdetzeko; baita galdera horiei erantzuteko ere, galdetzen berari galdetzen diotenean.

d. Ahozko adierazpena

- d.1.- Gai izatea bere burua, familia eta bestelako jendearen berri emateko eta deskribatzeko.
- d.2.- Gai izatea non bizi den, azaltzeko; bere etxea, herria nolakoa den...deskribatzeko modu errazean .
- d.3.- Gai izatea gertaeren kontaketa labur eta oinarritzkoak egiteko.
- d.4.- Gai izatea jasotako heziketa eta bere lehengo nahiz oraingo lana alderatzeko
- d.5.- Gai izatea bere zaletasunak eta interesak sinpleki deskribatzeko.
- d.6.- Gai izatea izandako pasadizoak eta esperientzia pertsonalak kontatzeko (adib. azken asteburua, azken oporrak).

e. Idazmena

- e.1.- Gai izatea ohar laburrak eta mezu sinpleak idazteko.
- e.2.- Gai izatea jasotako heziketari, lanari, interesei edota bere trebetasunari buruzko galdera-sorta bati erantzuteko.
- e.3.- Gai izatea gertaerak esaldi sinpleekin kontatzeko eta zer gertatu zen (noiz eta non) adierazteko (adib. festa bat edo istripu bat).
- e.4.- Gai izatea bere eguneroko bizimoduari buruz idazteko, esaldi eta esapide sinpleak erabiliz (jendea, lekuak, lana, eskola, familia, zaletasunak).
- e.5.- Gai izatea esapide sinpleak erabiliz, eskutitz laburrak idazteko: zorientzeko, helbidea emateko, zerbait galdetzeko edo norbaiti eskerrak emateko.
- e.6.- Gai izatea solasaldi laburrak idazteko, *eta, baina, zeren.* bezalako lokailuak erabiliz.
- e.7.- Gai izatea gertaera bat kontatzeko ordena kronologikoa segituz eta horretarako lokailu nagusiak erabiliz ("lehenik", "gero", orduan", "ondoren", "beranduago").

f. Estrategiak

- f.1.- Gai izatea norbaitengana jotzeko, laguntza eske
- f.2.- Gai izatea noiz ulertzen duen adierazteko.
- f.3.- Gai izatea solaskideari eskatzeko esan duena errepika dezala.